

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

1362

EBAZPENA, 2023ko martxoaren 8koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, 15/2023 prozedura laburtuari buruzko administrazio-espeditentea bidaltzea xedatu eta interesaturik egon daitezkeenak epatzen dituen.

15/2023 administrazioarekiko auzi-errekurtsoari dagokion administrazio-espeditentea –prozedura laburtua– bidaltzeko agindu du Bilboko Administrazioarekiko Auzien 1 zenbakiko Epaitegiak. Errekurtso hori María Begoña Gil Zabala andreak aurkeztu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko eskala Juridikoan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuan eta Administrazioko Goi-mailako Kidegoko Administrazioko eskalan enplegua finkatzeko prozesu berezian ez onartzearen aurka.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikulua xedatzen duenarekin bat, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Bilboko Administrazioarekiko Auzien 1 zenbakiko Epaitegiak eskatutako administrazio-espeditentea bidaltzea.

2. artikulua.– Aipatutako espeditentean interesdun izan daitezkeenak epatzea, bederatzi eguneko epean ager daitezen Bilboko Administrazioarekiko Auzien 1 zenbakiko Epaitegira, 15/2023 prozedura laburtuan alderdi modura aurkezteko aukera izan dezaten.

3. artikulua.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 8a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MAITE BARRUETABEÑA ZENEKORTA.